

ARALAR ALDERDI POLITIKOAREN VII. BILTZARREKO TXOSTENAREN LABURPENA



“Pertsona guztiak, ideia guztiak eta proiektu guztiak” lekua izango duten Euskal Herria, mundua ezkerretik eraikiz gure ekarpena eginez aritu gara, une gogor zein goxoagoetan baina beti leial gure printzipio nagusiari – eskubide guztiak pertsona guztientzat- eta bizkarra eman gabe gure adierazpen askatasunari. Koherentzia ipar eta bidelagun izaten ahaleginduz, maiz ulertu gabeak, baina ametsen gidaritza pean gure ekarpena eginaz, militantzi aske eta kritikoaren bultzadaz. Honatx Aralar, honatx ibilbide labur bezain trinkoaren izaera eta izana.

Lekukoa eman eta ibilbide politiko bati amaiera emateko unea da. Euskal Herrian ere, garai berriek iraultza sozialerako eta erabaki eskubidearen garapenerako behar duten tresna eraginkor berriari lekukoa emanez, bidea irekitzeko.

Sarrera

Ehkotopia, Aralar alderdiaren Biltzar eratzailleko (Gasteiz, 2002-VI-22/23) ponentzian,9. artikuluan horrela jaso zen:

“Aralar ezker abertzaleko alderdi politikoa izanik, helburu politikoetako bat eta bere sorreraren arrazoietakoa bat du eztabaida politikoa sustatzea ezker abertzalearen barruan, gune politiko hori berregituratu eta proiektu politiko eta antolakuntzako komun eta plural baten inguruan berriro batze aldera. Proiektu horrek bere inguruan bildu behar du gure herriko ezkeraren indar eraldatzaile izugarria.”

Ezin aipaturik gabe utzi, ARALAR alderdiaren Biltzar Eratzailean Patxi Zabaleta Koordinatzaileak, eta gaur egun alderdiko Ohorezko Presidenteak eginiko hitzartzean esandako zenbait pasarte:

“Aralar beharrezkoa da, ezker abertzaleak lehentasun politikoa onartu eta bere jokabidearen ardatz sendotzat ezar dezan. Politikagintzaren zintzotasuna, duintasuna eta nahi baduzue harrokeria berreskura ahal izan dezagun.”

“Ezker Abertzalearengatik berarengatik, ehkotopia.”

“Egunen batean, ezker abertzalea esparru politiko zabal eta tinko bat izanen da. Esparru bat bakarra. Euskal Herriko beste edozein esparru politikoaren adinakoa. Eta erabakigarria. Aralar ezker abertzalearen esparru horretan izanen da.”

“Baina ezker abertzaleko esparru politiko bakar eta zabal horrek hiru oinarri, edo hiru zutabe beharko du: bakea lehenik, politikagintzaren lehentasuna hurrena; eta hirugarrenik, ezkeraren berezko betiko utopia gehi ekarpen berriak.”

1.- Etorkizuna.

Aralar, bere sorreratik bertatik bukaera datarekin sortu zen. Bere ibilbide politikoari amaiera emateko bokazioarekin eta helburuarekin.

2.-Koherentzia.

Aralarrek sorrera egunetik, eta harrez gero eginiko Biltzarretan berretsitakoek, bere buruari emaniko izaera, helburu eta zereginek argi adierazten zuten eta dute Aralarren ibilbide politikoaren helmuga edo beste era batetara esanda bere ibilbideari amaiera emateko sasoi iritsi dela. Gaur egun hurrengo hauek zehaztatu daitezke:

2.1.-Ezker Abertzale zibil eta zabalaren sorrera. Euskal Herriaren independentzia bultzatu eta gidatu dezakeen indar politikoak benetako ezker eta benetako abertzalea izan behar du.

2.2.-ETAren borroka armatuaren bukaera. Bakea eta giza eskubideak politikagintzaren oinarri bezala aitortuta.

2.3.-Ezker Abertzalearen barne demokrazia: militante bat, bozka bat. Erabaki espazioen berregituraketa. Lurraldetasunaren helburua modu demokratikoetan eta euskal gizarteak duen izaerari errespetuz lotuta sustatzeko bide demokratikoak erabiltzea Ezker Abertzale osoak onartuta dauka.

Horiek ziren, hasiera hasieratik Aralarrek bere ibilbidea hasteko izan zituen arrazoi nagusiak, eta behin helburu printzipal horiek lortzeko, Aralarrek egin beharrekoak egin ostean, bada garaia iraganeko zikloa itxi eta ziklo berria indartzeko, Aralarren bidea alderdi politiko bezala amaitutzat emanda, nahiz eta orain arte defenditu ditugun ideiak defendatzen jarraituko dugun hemendikan aurrera ere. Bere lekukoa ziklo berriko tresnari emanaz, alegia EH Bilduri. Hasiak gara ibilbide berrian.

Ezkerraren, abertzaletasunaren eta aurrerakoitasunaren oinarriak biltzen dituen tresna badaukagu, dagoeneko Euskal Herriaren etorkizuna eraiki eta euskal herritarroi dagokigun erabaki eskubidea gauzatzeko eta tresna hori EH Bildu da. Baina tresna horrek garapen eta bilakaera sakonak eskatzen ditu gizarteko erronkei behar bezala erantzuteko eta bilakaera horietako bat zalantzarik gabe bere baitako bateratzea da, soilik horrela bermatuko baita oinarrizko barne demokrazia eta xede horretan Aralarrek egindako ekarpenak orain egin behar dugun urratsarekin osotu egiten dira.

3.-Emaniko Hitza Bete.

Ezker Abertzalearen historian, 1920ko hamarkadan ANVtik hasita ildo eta tendentzia ideologiko markatuak izan dira; besteak beste borroka armatuari, ezkerreko eta abertzaletasunaren arteko elkarketari, barne demokraziari eta, oro har, politikagintzaren lehentasunari eman beharreko erantzunez. Eztabaida horiek iraun dute oraintsu arte eta Aralarren sorreran eragina eduki zuten.

Aralar lehendabizi sortzen da iritzi ildo bezala Batasuna prozesuan; bertan aurkezten ditu Aralar izenarekin egindako lehendabiziko ponentziak eta bertan zehazten da baita ere Aralar ezker abertzaleko partaidea dela eta beti mantendu du ideia hori argi eta garbi eta giza eskubideak eta bakea defendatuz.

Batasuna prozesutik Aralar baztertuta geratu zen arrazoi bat baino gehiagorengandik: ez zitzaizolako borroka armatuaren arazoari behar bezalako aterabiderik ematen; ez zitzaizolako barne demokraziari aterabiderik bilatzen, esate baterako, ez ziren militantziak edo kongresuak onartzen eta.

Aralarren VI. Kongresuan onartutako ponentziak erabakitzen du ezker abertzale osoko batasuna bilatzea xedetzat hartzea. Helburu edo xede hau betetzen saiatu gara VI.

Kongresuaz geroztik igarotako bi urte luzeetan baina helburu hori ez dago soilik gure eskuetan eta ez da lortzerik izan.

VI. Kongresuko helburu edo erabakiak ez du esan nahi eta ezta ere VII. Kongresurako egiten dugun proposamenak ez du esan nahi Aralarreko militanteok edo militante izan direnak edo Aralarri men egiten diotenek ez dugula politikan jarraituko, baizik eta alderantziz, politikan jarraitzeko asmoarekin egindako urratsak dira. Besteak beste alderdien izateko eta jokatzeko moduek ere astindu sakona behar dutelako gizartearen eta batez ere gazteriaren eskakizunei erantzun ahal izateko.

Aralarren eraginez, eta beste askoren eraginez ere, egoera hori gainditzen joan da eta aitortu liteke gaur egungo ezker abertzalearen egitura politikoan, hau da EH Bildun:

a) Bakearen eta giza eskubidearen aldeko apustua tinkoa eta ukaezina dela.

b) Barne demokraziaren arloan militantzia eta Kongresuak onartu dira; agian falta da hautagaien aukera modu demokratikoetan egiteko ohiturak ezartzea eta hori ere bideratua dagoela esan liteke.

c) Ezkerreko politiken aintzineratzea praktikan egiten da, nahiz eta oraindik, atal honetan argitasuna eta tinkotasun gehiago behar den.

d) Feminismoaren, Ezker Berriko balioen, eta politika esku hartzaileen edo euskararen sustapenean Aralarrek beti aurkitu du Ezker Abertzaleko beste sentsibilitateekin adostasunak, ñabardurak, ñabardura.

Aralarrek beti aitortu du Ezker Abertzaleko partaide eta ildoak dela, baina ez Ezker Abertzalearen ordezkia. Ezker Abertzalea den esparru politiko bakar horretako ildo eta akuilatzaile bezala sortu zen eta garatu da Aralar alderdia; hori izan da Aralarren izaera eta bere xedea. Gaur egun ordea, baldintza eta helburu horiek lortuta daude. Ezker Abertzalea esparru politiko anitza eta zabala baina bakarra denez gero, erakunde politiko anitza eta zabala baina bateratua eskatzen eta behar du.

Aralarrek bere buruari emaniko tresna ezaugarritzeak, oraindik ere inolako alderdi politikoek bere burua tresna gisa ezaugarritzen ez zutenean, zehazten du ere auto - ezabatzearen denbora eta aukera.

Horrela jasotzen da gure VI. Biltzarreko ponentzia politikoan. Aralarren helburua ez da alderdi politiko gisa irautea, gizartea zerbitzatzea baizik. Beraz, tresna guztiek ez direlako baliagarriak ziklo eta une guztietarako, ulertzen dugu, alderdiek ezin direla bere baitan helburu bilakatu eta Aralarren hasierako xedeari leiala, amaiera emateko momentuan gaudela sorrera bertatik emaniko hitza beteaz eta koherentziagatik. Halaber, politikagintzak inoiz baino gehiago ziklo berri honetan herritarren aldetik behar duen sinesgarritasun eta atxikimendua lortzeko gure ekarpena ere, eginez. Eta horrela Euskal Herriari azken zerbitzu bat eginez.

4.-Lekukoa.

Aralarren xedea izanda eta bere militantziaren bidez izango da EH Bilduren baitan, bere ahalegina bideratzea besteak beste, etorkizuneko ezker abertzale bateratua eraikitzea eta hori gaur gaurkoz EH Bildu da. Beraz, ezkertiar, abertzale, soberanista, ekologista, feminista, aurrerakoi eta independentistak batzen dituen mugimenduaren egituraketari. Ezinbestekoa da egituraketaren bidea printzipio eta ildo ideologiko sendoetan eraikitzea, erritmoak eta abiadurak direnak direlarik. Barne demokrazia, parte – hartzea eta gardentasun irizpideen arabera jokatu. Horren hazia ereinda dago eta abian da EH Bildu. Etorkizuneko ezker abertzale bateratu eta berriak Euskal Herriaren independentzia eta askapen soziala aitortzen ditu xede estrategiko bezala, aldi berean. Euskal Herriko gehiengo aurrerakoiak bide, leku eta tresna bat izan behar du ezker abertzale berri horretan; halaber, independentziarako bidean aitzindari izateko prestatu beharko da, herritarrek beren ordezkari maila ematen dioten heinean.

5.-Euskal Gizarteak eta batez ere Gazteriak politikako duintasunaren eta gaurkotzearen mezua behar dute.

Ezker Abertzaleko Politika egiteko tresna EH Bildu baldin bada eta bertan Erkide edo Militante izatea badagoenez gero, alderdien egiturak mantentzeak ez dio gizarteari eta politikari argitasunik ematen eta mesederik egiten. Jendeak ikusi behar du eta ikusi nahi du erakunde politikoak sortzen diren bezala ezabatu eta desegin ere egin daitezkeela, besteak beste irauteagatik irauteak ez duelako mezu politikoak ilundu eta ezkutatu besterik egiten.

Politikaren duintasunak eskatzen du politikagintza esparru demokratikoetara eramatea, eta demokraziak eskatzen du militante guztiak berdinak izatea beren eskubide eta betebeharretan ; eta horretarako, egitura bateratuak ezinbestekoak dira, nahiz eta gero iritzi eta irizpide ildoak errespetatu behar diren. Iritzi ildoei adierazpen askatasuna eta izateko eskubidea onartu behar zaie, baina egitura bateratuko kideak izanez eta berezitasunengatik abantailarik eduki gabe. Jakin badakigu, alderdien historietan abiadura desberdinak eta egoera diferentek badaudela eta erakunde bakoitzari bere bidea egiteko eskubidea zor zaio, eta errespetatzen eta aitortzen dugu.

Jakina den bezala, batzuentzat ez da inoiz momentu egokia edo erraza izango, arrazoi batzuk edo besteak tarteko, alderdiaren ibilbideari amaia emateko. Baina bertako militante eta erkide izan garenon duintasunak eta batez ere, Euskal Herriak eta bereziki Ezker Abertzaleak behar duen eraberritzeak, ausartak izatea eskatzen digu. Aralarren izaerak, bokazioak eta ibilbideak hala eskatzen dute baina bereziki Euskal Herriaren eta Ezker Abertzalearen etorkizunak aldaketa sakonak behar ditu. Garaia iritzi da herritar askeak oinarri izango dituen nazio independentearen egitura amankomunak sortzen hasteko eta horrek egitura politiko bateratuak behar eta exijitzen ditu. Euskal gizarteak eta bereziki Ezker Abertzaleak estrategia berriak behar dituzte eta strategi horiek eztabaidatzeko, adosteko eta bultzatzeko Ezker

Abertzale zibila eta zabala edo berdin dena anitza, bateratua eta politikagintzari lehentasuna ematen diona behar dira. Euskal gizarteak jokabide ausartak eta duinak ikusi behar ditu politikagintzaren arloan eta Aralar alderdiak auto - ezabatzearen urratsa soilik arrazoi politikoengatik ematea, urrats duin eta ausarta da.

Bestalde, EH Bilduko iritzi ildoak taxutzeko arauak ezartzea ez dagokigu guri. Beraz, Aralarren Biltzarreko eztabaida mugatu egin behar da erabakitzera ea Aralarrek alderdi politiko bezala jarraitu behar duen ala ez.

Horregatik guztiarengatik, 2017ko Abenduak 2an, Iruñean burutuko dugun VII. Biltzarrean, Estatutuek horretarako jasotzen duten 60. artikulua beteaz ARALAR alderdiaren auto-ezabatzea da proposatzen duguna.